

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URKABUSTAIZKO UDALA

#### **Eguneko-arretarako landa zentroaren zerbitzuaren zerga-ordenantza hasiera batez onestea**

Urkabustaizko Udal Osoko Bilkurak, 2021eko ekainaren 2an egindako ohiko bilkuran, eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzuaren zerga-ordenantza hasiera batez onestea erabaki zuen, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen, apirilaren 2koaren, 49. eta 70.2 artikuluetan xedatutakoa eta apirilaren 18ko 781/1986 legegintzako errege-dekretuaren 56. artikuluan xedatutakoa betez, -legegintzako errege-dekretu horrek Toki Araubideari buruz indarrean diren Xedapenen Testu Bategina onetsi du-, espedientea jendaurrean jarriko da hogeita hamar eguneko epean, ALHAOn iragarki hau argitaratzen den biharamunetik, jendeak azter dezan eta egokiak jotzen dituen erreklamazioak aurkez ditzan.

Halaber, interesdunen eskura egongo da udalaren web gunean: [www.urbustiaiz.eus](http://www.urbustiaiz.eus).

Epe horretan ez bada alegaziorik aurkeztu, erabaki hori behin betiko onetsizat hartuko da.

Izarran, 2021eko ekainaren 2an

*Alkatea*

**XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA**